# Beste Iragarki Ofizial Batzuk

### EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GARRAIOKO ARBITRAJE BATZORDEA

JAKINARAZPEN ZEDULA, Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio Arbitraje Batzordeak emandako arbitrajeko laudoarena. 8651

JAKINARAZPEN ZEDULA, Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio Arbitraje Batzordeak emandako arbitrajeko laudoarena. 8652

# Pribatuen Iragarkiak

### «LA ARMONÍA» ETXEBIZITZA MERKEAK EGITEKO KOOPERATIBA

IRAGARKIA, «La Armonía» etxebizitza merkeak egiteko kooperatibaren likidazioari buruzkoa. 8653

# Xedapen Orokorrak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-2305

70/2004 DEKRETUA, apirilaren 27koa, Lanbide Heziketa Berezituko Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluak ateratzeko probak arautzen dituena.

Egungo sistema ekonomikoan, giza-baliabideen gaitasun-maila dugu gure ekoizpen sektoreen lehiakortasuna lortu eta enplegua sortzeko gakoetako bat. Ildo horretatik, gure inguruko herrialde aurreratuenek gobernu-ekintzatan gauzatu ohi dituzte ekoizpenaren sektore eta alorretan erdietsi behar diren gaitasun-mailak eta kualifikazio-helburuak ezartzea.

Hori guztia horrela, pertsonak euren lana egin dezaten prestatzea funtsezko gako dugu Euskal Autonomia Erkidegoak bere hazkunde ekonomikoari, herritarren ongizateari eta enplegu-sorkuntzari eutsi ahal izan diezaien. Euskal Autonomia Erkidegoak merkataritza-harremanak ditu merkatu globalean, eta hori nazioarteko lehiakortasun gero eta handiago baten mende da-

# Otros Anuncios Oficiales

### JUNTA ARBITRAL DEL TRANSPORTE DEL PAÍS VASCO

CÉDULA DE NOTIFICACIÓN sobre Laudo de la Junta Arbitral del Transporte del País Vasco. 8651

CEDULA DE NOTIFICACIÓN sobre Laudo de la Junta Arbitral del Transporte del País Vasco. 8652

# Anuncios Particulares

### SOCIEDAD COOPERATIVA DE CASAS BARATAS LA ARMONÍA

ANUNCIO relativo a la liquidación de la Sociedad Cooperativa de Casas Baratas la Armonía. 8653

# Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-2305

DECRETO 70/2004, de 27 de abril, por el que se regulan las pruebas para la obtención de los Títulos de Técnico y Técnico Superior de Formación Profesional Específica.

En el actual sistema económico el nivel de competencia de los recursos humanos es una de las claves para conseguir la competitividad de nuestros sectores productivos y para la creación de empleo. En este sentido, los países más avanzados de nuestro entorno, concretan en acciones de gobierno el establecimiento de los niveles de competencia y los objetivos de cualificación que deber ser alcanzados en los diversos sectores y campos ocupacionales de la producción.

Por todo ello, la preparación de las personas para realizar su trabajo es una de las claves para que la Comunidad Autónoma del País Vasco pueda mantener e incrementar su crecimiento económico, el bienestar de los ciudadanos y de las ciudadanas y la creación de empleo. El País Vasco mantiene relaciones comerciales en un mercado global sometido a una creciente competencia

go, eta horko aukera berriak, gero eta gehiago, lanbide-gaitasunaren araberakoak dira, hau da pertsonek edozein lanbide-arlotan erdiets dezaketen emaitzen heinekoak.

Testuinguru horretan, etengabeko ikaskuntzak funtsezko garrantzia du lanbide-gaitasuna areagotzeko, ezagutzaren gizarteak gero eta gehiago eskatzen du eta. Era berean, etorkizuneko ikaskuntzetarako motibazioa ere eragin behar du. Helburu horretarako, ezinbestekoa da pertsonek lan-esperientzien eta ikaskuntzen etekinak batu ahal izan dezaten, horiek bide ez-formaletatik eskuratu badituzte ere.

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoak, bere 30.5 artikuluan xedatu duenez, Berariazko Lanbide Heziketak herritarren etengabeko prestakuntzari lagundu, eta ekoizpen-sistemaren kualifikazio-beharrizanei jaramon egingo die.

Ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoak, bere 8. artikuluan ezarri duenez, lan-esperientziaz eta prestakuntza-bide ez-formaletatik lortutako lanbide-gaitasunen ebaluazioak eta kreditazioak Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala izango dute erreferentetzat, eta hala ebaluatutako gaitasunen aintzatespena, lanbide-heziketako tituluren batean jasotako kualifikazioak betetzen ez direnean, zatikako kreditazio metagarri baten bidez egingo dela, hala bada, dagokion titulua eskuratzeko prestakuntza osatzeko asmoz.

Abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak, Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoak, bere 7.6 artikuluan ezarri duenez, hezkuntza-sistemak bermatu egingo du helduek ezagutza jaso, eguneratu, osatu edo zabaldu ahal izatea, garapen pertsonal eta profesionalerako. Lege bereko 54.5 artikuluak, berriz, honako hau xedatu du: hezkuntza-administrazioek probak antolatuko dituztela Lanbide Heziketako tituluak atera ahal izateko, Gobernuak ezarriko dituen oinarrizko baldintzen arabera.

Lanbide Heziketari buruzko Euskal Planak, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko apirilaren 22an onetsiak, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Integratua ezarri du. Horren helburu nagusietako bat da kalitatezko lanbide heziketa lortzea, Europako testuinguruan homologa daitekeena, bai ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituzten erakundeek, bai gizarteak aintzatetsi eta baloratuko duena, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrerabide sozial eta ekonomikorako lagungarri gisa.

Apirilaren 29ko 97/1997 Dekretuak, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakaskuntzaren ezarpena eta dagozkien tituluei buruzko jarraibideak arautzen dituenak, bere 13. artikuluan ezarri duenez, prestakuntzaren eskaintza partziala egin daiteke, baita lanbide-tituluak ateratzeko probak prestatu ere, lanean ari diren helduentzako, horien lanbide-gaitasuna areagotzeko ondasun eta zerbitzuen ekoizpen-sisteman.

internacional, donde las nuevas oportunidades dependen, cada vez más, de la competencia profesional esto es, de los resultados que las personas sean capaces de obtener en cualquier campo ocupacional.

En este contexto, el aprendizaje permanente es un elemento de importancia capital para el incremento de la competencia profesional cada vez más exigida en una sociedad del conocimiento. Así mismo, debe ser motivador de futuros aprendizajes. Con este fin, es fundamental que las personas puedan capitalizar la experiencia laboral y sus aprendizajes aunque éstos se hayan adquirido por vías no formales.

La Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, en su artículo 30.5, indica que la Formación Profesional Específica contribuirá a la formación permanente de los ciudadanos y atenderá las demandas de cualificación del sistema productivo.

La Ley Orgánica 5/2002, de 19 de junio, de las Cualificaciones y de la Formación Profesional en su artículo 8 establece que la evaluación y la acreditación de las competencias profesionales adquiridas a través de la experiencia laboral o de vías no formales de formación, tendrá como referente el Catálogo Nacional de Cualificaciones Profesionales y que el reconocimiento de las competencias profesionales así evaluadas, cuando no completen las Cualificaciones recogidas en algún título de formación profesional, se realizará a través de una acreditación parcial acumulable con la finalidad, en su caso, de completar la formación conducente a la obtención del correspondiente título.

La Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación, establece en su artículo 7.6 que el sistema educativo garantizará que las personas adultas puedan adquirir, actualizar, completar o ampliar sus conocimientos para el desarrollo personal y profesional y en el artículo 54.5 determina que las Administraciones educativas organizarán pruebas, de acuerdo con las condiciones básicas que el Gobierno establezca, para obtener los títulos de Formación Profesional.

El Plan Vasco de Formación Profesional, aprobado por Consejo de Gobierno el 22 de abril de 1997, establece un Sistema Integrado de Cualificaciones y Formación Profesional, siendo uno de sus objetivos fundamentales la consecución de una formación profesional de calidad, homologable al contexto europeo, que sea reconocida y valorada tanto por las organizaciones productivas de bienes y servicios como por la sociedad como elemento determinante del progreso económico y social del País Vasco.

El Decreto 97/1997, de 29 de abril, por el que se establece la regulación del bachillerato, las enseñanzas de Formación Profesional y las directrices sobre sus títulos y se dispone su implantación, en su artículo 13, contempla la oferta parcial de formación y las pruebas para la obtención de títulos profesionales para las personas adultas y en activo, en aras a incrementar la competencia profesional de las mismas en el sistema productivo de bienes y servicios.

Uztailaren 18ko 942/2003 Errege Dekretuak, Berariazko Lanbide Heziketako Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluak ateratzeko oinarrizko baldintzak ezarri dituenak, proba horien jarraibide eta betebehar orokorrak ezarri ditu.

Helduei erraztasunak emateko asmoz, euren lan-esperientzia eta ikaskuntza ez-formala kapitaliza ditzaten Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluak osatzen dituzten moduluak gainditu eta horiei lotutako lanbide-gaitasuna egiaztatu ahal izateko, behar-beharrezkoa da arian-arian ezartzea Lanbide Gaitasuna Ebaluatzeko prozedura bat, pertsonalizatua eta malgua, orientazio-prozesua ahalbideratzeko eskatzaileei, lanbide-gaitasuna eta etengabeko ikaskuntzarako motibazioa areagotzeko.

Horiek horrela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, dagozkien kontsulta-organoei entzun eta gero, Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenarekin bat etorrita, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko apirilaren 27an egindako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

Hona Dekretu honen xedea: helduek Berariazko Lanbide Heziketa Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluak ateratzeko egin behar dituzten probek arau izango dituzten baldintzak erregulatzea; orobat, proba horiek egiteko bi erak erregulatzea.

*2. artikulua.–* Probak egin ahal izateko baldintza orokorrak.

1. Probak egin ahal izateko, eskatzaileek hogei urte izan beharko dituzte, goi-mailako heziketa-zikloen probetarako, eta hemezortzi, erdi-mailako heziketa-zikloen probetarako. Proba egingo den urte naturalean bete beharko dituzte urteak.

2. Aurreko paragrafoan esandako adin-betebeharraz gain, eskatzaileek ondoko betebeharretakoren bat bete beharko dute:

a) Gutxienez bi urteko lan-esperientzia egiaztatzea, dagokion lanbide-modulua edo aintzatetsi nahi den gaitasun-unitatea zer hezkuntza-ziklotakoa den, horren ekoizpen-sektorearekin lotuta. Ondoko agirien bidez egiaztatuko da hori:

1) Gizarte Segurantzako Diruzaintzaren edo lan-mutualitatearen ziurtagiria, zeinean enpresa, lanbide kategoria (kotizazio taldea) eta kontratazio aldia, edo, betiere, Langile Autonomoen Araubide Bereziko kotizazio aldia adieraziko baitira. Zuzenbidean onartutako beste edozein frogabide ere onartuko da.

El Real Decreto 942/2003, de 18 de julio, por el que se determinan las condiciones básicas que deben reunir las pruebas para la obtención de los títulos de Técnico y Técnico Superior de Formación Profesional Específica, establece las directrices generales y requisitos que deben cumplir estas pruebas.

Con el fin de facilitar a las personas adultas la posibilidad de capitalizar la experiencia laboral y los aprendizajes no formales a efectos de superar los módulos que conforman los títulos de Técnico y Técnico Superior, así como de reconocer la competencia profesional asociada a los mismos, es necesario establecer, de modo progresivo, un procedimiento de Evaluación de la Competencia Profesional personalizado y flexible que posibilite un proceso de orientación a los solicitantes para el incremento de su competencia profesional y la motivación hacia el aprendizaje permanente.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, oídos los órganos consultivos interesados, de acuerdo con el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 27 de abril de 2004,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto regular las condiciones por las que se regirán las pruebas que lleven a cabo las personas adultas para la obtención de los títulos de Técnico y Técnico Superior de Formación Profesional Específica, así como, las dos formas de llevar a cabo la realización de las mismas.

*Artículo 2.–* Requisitos generales para acceder a la realización de las pruebas.

1. Para acceder a la realización de las pruebas los solicitantes deberán tener veinte años para las pruebas de ciclos formativos de Grado Superior y dieciocho años para las pruebas de ciclos formativos de Grado Medio, cumplidos en el año natural de celebración de la prueba.

2. Además del requisito de edad señalado en el apartado anterior, los solicitantes deberán cumplir algunos de los requisitos siguientes:

a) Acreditar una experiencia laboral, de al menos dos años, relacionada con el sector productivo del ciclo formativo al que pertenezca el módulo profesional correspondiente o de la unidad de competencia cuyo reconocimiento se pretende. Dicha acreditación se realizará mediante los documentos siguientes:

1.º.– Certificación de la Tesorería General de la Seguridad Social o de la mutualidad laboral a la que estuviera afiliado, donde conste la empresa, la categoría laboral (grupo de cotización) y el período de contratación, o en su caso el período de cotización en el Régimen especial de Trabajadores Autónomos o de cualquier otro medio de prueba admitido en derecho.

2) Lan-esperientzia zer enpresatan hartu duen, horren ziurtagiria, datu hauekin: kontratuaren iraupena, egindako lana eta zenbat denbora egin duen lan horretan. Beren kontura ari diren langileen kasuan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen ziurtagiria eta zerga hori ordaindu izanaren frogagiriak.

b) Interesatuak dagokion lanbide-sektorearekin zerikusia duen lanbide-irakaskuntza lehenago ere hartu izana egiaztatu beharko du, ziurtagiriaren bitartez.

*3. artikulua.*– Probetarako deia eta matrikulazioa.

1. Proba hauetarako matrikula azaroaren bigarren hamabostaldian egingo da. Heziketa-ziklo oso bakar baterako egin ahal izango da matrikula, edo bestela zikloa osatzen duten lanbide-moduluetakoren baterako. Probak deialdika egingo dira: ohiko deialdia maiatzaren azken hamabostaldian izango da; eta ohiz kanpokoa, ekainaren azken hamabostaldian.

2. Matrikulazioa ikastetxe publikoetan egingo da, ikastetxeak baimenduta dituen heziketa-zikloetan, baldin eta ikasturte horretan ematen badira.

3. Ikastetxe bakoitzeko ikasketa-buruak proben egutegia prestatu, eta iragarki-oholean argitaratuko du, probak egin baino lehenago; hain zuzen ere, 20 egun lehenago, gutxienez. Egutegi horretan honako hauek jasoko dira: proben egunak, orduak eta modulu bakoitzari dagozkion probak egiteko gehienezko denbora. Planifikazioak, ahal dela, proben kontzentrazioa saihestuko du.

4. Ikasturte berean, ikasle batek ezin izango du titulu bat lortzeko irakaskuntzetan matrikulatuta egon, eta aldi berean, arau honek erregulatzen dituen probetan, baldin eta proba horiek titulu bera lortzeko badira. Orobat, ikasturte berean, eta proba hauetarako, ikasle batek ezin izango du bi ikastetxetan matrikulatu heziketa-ziklo berean.

*4. artikulua.*– Proben edukia eta kalifikazioa

1. Proben edukiek ondoko oinarriak izango dituzte, funtsean: indarreko heziketa-zikloen curriculumak eta horiei dagozkien lanbide-gaitasunak. Probek eduki teorikoak eta praktikoak izango dituzte, proba horiek ebaluatzeko eta egiteko irizpideetan oinarrituta egiaztatu ahal izateko eskatzen zaizkien ahalmen eta gaitasunak dituztela izangaiek. Heziketa-zikloak osatzen dituzten lanbide-moduluetako bakoitzerako proba bana prestatuko da, lantokiko prestakuntzarako modulurako izan ezik.

2. Berariazko Lanbide Heziketa ebaluatzeari buruzko indarreko xedapenen arabera egingo da lanbide-modulu bakoitzaren kalifikazioa, eta hala bada, zikloaren azken kalifikazioa.

2.º.– Certificación de la empresa donde haya adquirido la experiencia laboral, en la que conste específicamente la duración del contrato, la actividad desarrollada y el período de tiempo en el que se ha realizado dicha actividad. En el caso de trabajadores por cuenta propia, certificación de alta en el Impuesto de Actividades Económicas y justificantes de pago de dicho impuesto.

b) Aportar certificación justificativa de que el interesado ha cursado con anterioridad enseñanzas profesionales relacionadas con el sector profesional correspondiente.

*Artículo 3.*– Convocatoria de las pruebas y matriculación.

1.– La matriculación para estas pruebas se realizará en la segunda quincena del mes de noviembre, La matricula se podrá efectuar para un solo ciclo formativo completo o para alguno de los módulos profesionales que lo componen. La realización de las pruebas se efectuará por convocatorias, la ordinaria en la última quincena del mes de mayo y la extraordinaria en la última quincena del mes de junio.

2.– La matriculación se realizará en los centros públicos y ciclos formativos que tenga autorizados el centro y se estén impartiendo durante ese curso académico.

3.– El jefe de estudios de cada centro confeccionará el calendario de las pruebas, que se hará público en el tablón de anuncios, con una antelación de, al menos, 20 días al comienzo de las mismas. En este calendario se harán constar los días, horas, lugares y el tiempo máximo para la realización de las pruebas correspondientes a cada modulo profesional. La planificación de las mismas evitará, en lo posible, su concentración.

4.– Durante el mismo curso académico un alumno no podrá estar matriculado en las enseñanzas conducentes a un título y, simultáneamente, en las pruebas que se regulan en esta norma si éstas tienen por objeto la obtención del mismo título. Asimismo, durante un mismo curso académico y para estas pruebas un alumno no podrá matricularse del mismo ciclo formativo en dos centros diferentes.

*Artículo 4.*– Contenido y calificación de las pruebas

1. Los contenidos de las pruebas han de fundamentarse en los currículos de los ciclos formativos vigentes y sus correspondientes competencias profesionales. Las pruebas incluirán contenidos teóricos y prácticos que permitan evidenciar, a través de los criterios de evaluación y realización correspondientes, que los candidatos han alcanzado las distintas capacidades y competencias. Se confeccionará una prueba para cada uno de los módulos profesionales que componen los ciclos formativos excepto para el módulo de formación en centros de trabajo.

2. La calificación de cada uno de los módulos profesionales y, en su caso, la calificación final del ciclo, se realizará en los términos previstos en la normativa vigente en materia de evaluación de la Formación Profesional Especifica.

*5. artikulua.–* Baliozkotzeak, exentzio edo salbuespenak, korrespondentziak eta Lantokiko Prestakuntza Modulua .

1. Agindu honetan ezarritako probetarako matrikulatuta dauden pertsonei ondokoa aplikatuko zaie: lanbide-moduluak baliozkotzeari eta Lantokiko Prestakuntza Moduluaren exentzioari buruz indarrean dagoen arautegia.

2. Matrikula egiterakoan aurkeztu beharko da lanbide-moduluak baliozkotzeko edo Lantokiko Prestakuntza Moduluaren exentziorako eskaria. Lantokiko Prestakuntza Moduluaren exentzioa eskatuz gero, dena den, gainerako lanbide-moduluak gainditu ondoren ere aurkeztu ahal izango dira egiaztagiriak, exentzio-eskarian jasota utziz gainerako lanbide-moduluak gainditu egin direla

Lantokiko prestakuntza modulua presentziazko erregimenean egin beharko da, dagokion heziketa-zikloaren oinarrizko curriculum-garapenak iraupen finkotzat ezarri duen ordu kopuruaren arabera. Ondorio horietarako, eskatzaileak lantokiko prestakuntza modulurako matrikula zein ikastetxetan egin duen, ikastetxe horrek eskuratuko dio edo dizkio modulu hori egiteko enpresa edo enpresak, eta moduluaren jarraipena eta ebaluazioa ere egingo ditu.

*6. artikulua.–* Ebaluazio-batzordeak.

1. Ebaluazio-batzorde bakoitzak ondoko kideak izango ditu, gutxienez: batzordeburua, idazkaria eta hiru batzordekide, probak egingo dituen ikastetxeko zuzendariak izendatuak. Nolanahi ere, honako hau bermatu beharko da: batzordekide batek gutxienez lanbide-modulu bakoitzerako irakaskuntza-atribuzioa izango duela. Profesional kualifikatuak aholkulari gisa sartu ahal izango dira ebaluazio-batzordeetan, hala egokitzen bada.

2. Ebaluazio-batzordeak epaituko ditu emaitzak, halako moldez non ezarritako probak gainditzeak eskatzaileei honako hau ekarriko dien: dagokion moduluan azaldutako gaitasun nahikoa lortzea. Emaitzak akta batean jasoko dira, eta batzordeko kide guztiek izenpetuko dute. Akta hori ikastetxeko idazkaritzan gordeko da.

*7. artikulua.–* Gaitasuna Ebaluatu eta Aitortzeko Sistemaren bidezko probak.

1. Helduei prozedura malgu eta pertsonalizatu batez errazteko euren lan-esperientzia eta ikaskuntza ez-formalak kapitalizatzeko aukera, Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluak osatzen dituzten moduluak gainditze aldera, eta baita horiei lotutako lanbide-gaitasuna aitortzeko ere, lanbide-gaitasuna ebaluatzeko prozedura bat ezarri da, bi fase edo aldi izango dituena: aholkularitza-laguntzaren aldia, eta gaitasun-probak egiteko aldia.

*Artículo 5.–* Convalidaciones, exenciones, correspondencias y módulo de Formación en Centros de Trabajo.

1. Para las personas matriculadas en las pruebas establecidas en el presente Decreto será de aplicación lo dispuesto en la normativa vigente en materia de convalidaciones de módulos profesionales y de exención del módulo de Formación en Centros de Trabajo.

2. La solicitud de las anteriores convalidaciones de módulos profesionales o exención para el módulo de Formación en Centros de Trabajo deberá realizarse en el momento de formalizar la matrícula. En el caso de solicitar la exención en el módulo de Formación en Centros de Trabajo, la justificación documental podrá presentarse, no obstante, una vez se hayan superado el resto de los módulos profesionales, haciendo constar este extremo en la solicitud de exención

El módulo profesional de formación en centros de trabajo deberá cursarse de forma presencial en el número de horas que como duración fija determine el desarrollo curricular base del ciclo formativo correspondiente, una vez de tener aprobados el resto de módulos profesionales que componen el ciclo formativo. A estos efectos, el centro donde el solicitante efectúe la matrícula para este módulo de formación en centros de trabajo facilitará la empresa o empresas donde pueda realizarlo y hará el seguimiento y evaluación del mismo.

*Artículo 6.–* Comisiones de evaluación

1. Cada comisión de evaluación la compondrán, al menos, un Presidente, un Secretario y tres vocales designados al efecto por el director del centro donde se celebren las pruebas. En todos los casos se deberá garantizar que habrá, al menos, un miembro de la comisión con atribución docente para cada uno de los módulos profesionales. A las distintas comisiones de evaluación podrán incorporarse, si procede, como asesores, profesionales cualificados.

2. La comisión de evaluación juzgará los resultados, de forma que la superación de las pruebas establecidas suponga por parte de los solicitantes alcanzar las competencias suficientes descritas en el módulo correspondiente. Los resultados se harán constar en un acta que firmarán todos los miembros de la comisión y será custodiada en la secretaría del centro.

*Artículo 7.–* Pruebas a través del Dispositivo de Evaluación y Reconocimiento de la Competencia.

1. Con el fin de facilitar a las personas adultas, mediante un procedimiento flexible y personalizado, la posibilidad de capitalizar la experiencia laboral y los aprendizajes no formales a efectos de superar los módulos que conforman los títulos de Técnico y Técnico Superior, así como de reconocer la competencia profesional asociada a los mismos, se establece un procedimiento de evaluación de la competencia profesional que consta de dos fases: fase de asesoramiento-acompañamiento y fase de realización de pruebas de competencia.

Aholkularitza-laguntzaren aldia irakasleek burututko dute; hain zuzen ere, prestakuntza-ikastaroa behar bezala egin ondoren, horretarako izendatuko diren irakasleek.

Gaitasun-proben aldia egiteko, ebaluazio-batzorde edo ebaluazio-talde bat egongo da gutxienez, lanbide-alor bakoitzeko. Batzordeak ondoko kideak izango ditu, gutxienez: batzordeburua, idazkaria eta hiru batzordekide, Lanbide Heziketako zuzendariak horretarako izendatuak. Nolanahi ere, honako hau bermatu beharko da: batzordekide batek gutxienez lanbide-modulu bakoitzerako irakaskuntza-atribuzioa izango duela. Profesional kualifikatuak aholkulari gisa sartu ahal izango dira ebaluazio-batzordeetan, hala egokitzen bada. Ebaluazio-batzordeetako bakoitza Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan aritu ahal izango da.

2. Aurreko paragrafoan esandako prozedura malgu eta pertsonalizatua arian-arian abiarazteko asmoz, Gaitasuna Ebaluatu eta Aitortzeko Sistemaren bidezko probak I. eranskinean ezarritako lanbide-alorretan eta heziketa-zikloetan egingo dira.

3. Sistema honen bidezko probak egiteko matrikulazioa eta inskripzioa martxoaren eta urriaren 1aren eta 15aren bitartean egingo da. Matrikulatu eta probak egin bitarteko aldia ez da lau hilabete baino gehiago izango, eta II. eranskinean zehazturiko zentroetan egingo da matrikulazio hori.

4. Lanbide-kualifikazioak osatzen dituzten lanbide-moduluei dagozkien prestakuntza-kredituak egin dituztenek, baldin eta modulu edo gaitasun-unitateren bat osatu badute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2000ko maiatzaren Aginduaren babesean, eta bide horretatik lortutako lanbide-modulu edo gaitasun-unitateak egiaztatu nahi badituzte, artikulu honetan arautzen den prozedurara bil daitezke, eta dagokion lanbide-alorra baimenduta duten ikastetxe publikoetan matrikulatu ( Agindu horretako IV. eranskina).

Dekretu honetako I. eranskinean agertzen ez diren alorretako lanbide-kualifikazioen moduluak ebaluatzeko, Lanbide Heziketako zuzendariak ebaluazio-batzordeak izendatuko ditu, eta horiek arduratuko dira ebaluazio- eta aitorpen-prozeduraz.

*8. artikulua.–* Titulazioa, egiaztatzea eta erregistroa.

1. Heziketa-ziklo bereko lanbide-modulu guztiak gainditzen dituzten interesatuek honako hau egiaztatu beharko dute dagokien titulua eman dakiela eskatu baino lehen: Hezkuntzaren Kalitateari buruzko 10/2002 Lege Organikoak, abenduaren 23koak, bere 38. artikuluan ezarri dituen baldintza akademiko guztiak betetzen dituztela.

La fase de asesoramiento-acompañamiento será llevada a cabo por profesores, que tras haber realizado con aprovechamiento un curso de formación, serán designados al efecto.

La fase de pruebas de competencia la desarrollará, al menos, una comisión de evaluación o equipo evaluador para cada Familia Profesional que lo compondrán, al menos, un Presidente, un Secretario y tres vocales designados al efecto por el Director de Formación Profesional. En todos los casos se deberá garantizar que habrá, al menos, un miembro de la comisión con atribución docente para cada uno de los módulos profesionales. A las distintas comisiones de evaluación podrán incorporarse, si procede, como asesores, profesionales cualificados. Cada una de estas comisiones de evaluación podrá actuar en los tres Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. A los efectos de implementar de forma gradual el procedimiento personalizado y flexible contemplado en el apartado anterior, las pruebas a través del Dispositivo de Evaluación y Reconocimiento de la Competencia se realizarán en las Familias Profesionales y ciclos formativos que se establecen en el anexo I.

3. La matriculación e inscripción para la realización de las pruebas a través de este sistema se efectuará entre los días 1 y 15 de los meses de marzo y octubre. El tiempo que medie entre la matriculación y la realización de las pruebas no podrá ser superior a cuatro meses. Dicha matriculación se efectuará en los centros públicos que se determinan en el anexo II.

4. Aquellas personas que, habiendo cursado créditos formativos correspondientes a los módulos profesionales que integran las cualificaciones profesionales, hayan completado un módulo o unidad de competencia al amparo de la orden de 11 de mayo de 2000 del Consejero de Educación Universidades e Investigación, a los efectos de la certificación de módulos profesionales o unidades de competencia obtenidos por esta vía, se podrán acoger al procedimiento contemplado en este artículo, efectuando la matrícula en los centros públicos que tengan autorizada la familia correspondiente ( Anexo IV de la citada Orden).

Para la evaluación de los módulos de las cualificaciones profesionales de aquellas familias que no figuran en el anexo I del presente Decreto, el Director de Formación Profesional nombrará comisiones de evaluación al efecto que serán las encargadas de llevar a cabo el procedimiento de evaluación y reconocimiento.

*Artículo 8.–* Titulación, acreditación y registro.

1. Los interesados que superen todos los módulos profesionales de un mismo ciclo formativo deberán acreditar previamente a la solicitud de expedición del título correspondiente, que están en posesión de los requisitos académicos establecidos en el artículo 38 de la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la educación.

2. Gaitasun-unitate bati lotutako lanbide-moduluak gainditzeak hura kreditatzeko eskubidea emango du.

3. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila arduratuko da gaitasun-unitateak kreditatzeaz.

4. Gaitasun-unitateen kreditazioen, eta hala bada, lanbide-kualifikazioen erregistroa honela egingo da: 733/1995 Errege Dekretuak, maiatzaren 5ekoak, titulu akademikoak eta profesionalak emateari buruzkoak, ezarri duen prozeduraren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bestelako betebehar akademikoak.

Hezkuntzaren Kalitateari buruzko 10/2002 Lege Organikoak, abenduaren 23koak, bere 38. artikuluan ezarri dituen baldintza akademikoen kaltetan gabe, eta dekretu honen 8.1 artikuluak ezarri duenaren ondorioetarako, ondokoetako kreditazioren bat ekar dezakete izangaiek:

1. Teknikari tituluarentzako:

a) Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua izatea.

b) Teknikari Laguntzaile titulua izatea.

c) Teknikari titulua izatea

d) Batxilergo Bateratu Balioanizdunaren bigarren maila gainditua izatea.

e) Irakaskuntza ertainak eraberritzeko lehen ziklo esperimentalaren bigarren maila gainditua izatea.

f) Arte Aplikatu eta Ofizio Artistikoen irakaskuntzei dagokienez, 1963ko planaren hirugarren maila gainditua izatea, edo komunetako bigarren maila esperimentala gainditua izatea.

g) Ondorio akademikoetarako aurrekoen baliokidetzat jotako beste ikasketa batzuk gaindituta izatea.

2. Goi Mailako Teknikari tituluetarako:

a) Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerakoak, ezarritako Batxiler titulua izatea.

b) Batxilergo Esperimentaleko edozein modalitateko bigarren maila gainditua izatea.

c) Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea edo unibertsitatearen aurrekoa gainditua izatea.

d) Teknikari Espezialista, Goi Mailako Teknikari edo ondorio akademikoen aldetik baliokide den bat izatea.

e) Unibertsitateko titulazioa edo baliokidea izatea.

2. La superación de los módulos profesionales asociados a una unidad de competencia, dará derecho a la acreditación de ésta.

3. La acreditación de las unidades de competencia, se realizará por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

4. El registro de las acreditaciones de unidades de competencia y, en su caso, de las Cualificaciones profesionales, se realizará de acuerdo al procedimiento establecido en el Real Decreto 733/1995, de 5 de mayo, sobre expedición de títulos académicos y profesionales.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Otros requisitos académicos.

Sin perjuicio de los requisitos establecidos en el artículo 38 de la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación, y a los efectos de lo establecido en el artículo 8.1, para la solicitud del título correspondiente los aspirantes podrán aportar alguna de las acreditaciones siguientes:

1. Para los títulos de Técnico:

a) Estar en posesión del título de Graduado en Educación Secundaria.

b) Estar en posesión del título de Técnico Auxiliar.

c) Estar en posesión del título de Técnico

d) Haber superado el segundo curso de Bachillerato Unificado Polivalente.

e) Haber superado el segundo curso del primer ciclo experimental de reforma de las enseñanzas medias.

f) Haber superado, de las enseñanzas de Artes Aplicadas y Oficios Artísticos, el tercer curso del Plan de 1963 o el segundo de comunes experimental.

g) Haber superado otros estudios declarados equivalentes a efectos académicos con alguno de los anteriores.

2. Para los títulos de Técnico Superior:

a) Estar en posesión del título de Bachiller establecido en la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo.

b) Haber superado el segundo curso de cualquier modalidad de Bachillerato Experimental.

c) Haber superado el Curso de Orientación Universitaria o Preuniversitario.

d) Estar en posesión del título de Técnico Especialista, Técnico Superior o equivalente a efectos académicos.

e) Estar en posesión de una titulación universitaria o equivalente.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehena.–* Lanbide-gaitasunak ebaluatzea.

1. Ikasketa ez-formalen bidez edo lan-esperientziaz lortutako lanbide-gaitasunen ebaluazioa, dagokien lanbide-kualifikazioen arabera egingo da; hain zuzen ere, ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak sortutako Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalean jasota daudenen arabera, eta irailaren 5eko 1128/2003 Errege Dekretuaren babesean.

2. Katalagoak dagokion lanbide-kualifikazioa bere barruan sartu arte, aurreko paragrafoak aipatzen dituen gaitasunen ebaluazioa ondokoen arabera egingo da: Berariazko Lanbide Heziketako Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluetan ezarritako gaitasun-unitateen arabera.

3. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egokituko zaio dagokion ebaluazioaren ondoriozko Lanbide Heziketako tituluak ematea, eta hala bada, horiei lotutako lanbide-gaitasunen kreditazio partziala egitea.

*Bigarrena.–* 2003/2004 ikasturterako matrikulazio-epeak.

2003/2004 ikasturtean, Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluak ateratzeko probak egin nahi dituztenek, hain zuzen ere dekretu honetako 3.1 artikuluan zehazten direnak, maiatzaren 24a eta 28a bitartean, biak barne, egingo dute matrikula. Ohiko proba, berriz, ekainaren bigarren hamabostaldian egingo da, eta ohiz kanpokoa, iraileko bigarren hamabostaldian.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko apirilaren 27an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.–* Evaluación de las competencias Profesionales.

1. La evaluación de las competencias profesionales adquiridas a través de aprendizajes no formales o de experiencia laboral se efectuará atendiendo a las correspondientes Cualificaciones Profesionales, incluidas en el Catálogo Nacional de Cualificaciones Profesionales, creado por la Ley Orgánica 5/2002, de 19 de junio, y al amparo del Real Decreto 1128/2003, de 5 de septiembre.

2. Hasta que no se incluya en el catálogo la correspondiente cualificación profesional, la evaluación de las competencias a que se refiere el apartado anterior, se efectuará atendiendo a las unidades de competencia establecidas en los títulos de Técnico y Técnico Superior de Formación Profesional Especifica.

3. La expedición de los títulos de Formación Profesional y, en su caso, la acreditación parcial de las competencias profesionales asociadas a los mismos a que la evaluación correspondiente pudiera dar lugar, corresponderá a la Consejera de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.

*Segunda.–* Plazos de matriculación curso 2003/2004.

En el curso académico 2003/2004, aquellas personas que se acojan a la modalidad de pruebas para la obtención de los títulos de Técnico y Técnico Superior descritas en el artículo 3.1, realizarán la matrícula entre los días 24 y 28 de mayo, ambos inclusive, teniendo lugar la realización de la prueba ordinaria la segunda quincena del mes de junio y la extraordinaria la segunda quincena del mes de septiembre.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz a 27 de abril de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

# I. ERANSKINA, 70/2004 DEKRETUARENA

## DEKRETU HONETAKO 7. ARTIKULUAK GAITASUNA EBALUATU ETA AITORTZEKO EZARRI DUEN SISTEMAREN BITARTEZ EGINGO DIREN PROBETARAKO LANBIDE ALORRAK ETA HEZIKETA ZIKLOAK

| LANBIDE ARLOA | HEZIKETA ZIKLOA |
|---|---|
| Fabrikazio Mekanikoa | Mekanizazioa<br>Mekanizazio bidezko Produkzioa |
| Ibilgailu Autopropultsatuen Mantentze-lanak | Karrozeria |
| Ostalaritza eta Turismoa | Sukaldaritza |
| Elektrizitatea eta Elektronika | Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak<br>Informatikako eta Telekomunikazioetako Sistemak |
| Produkzioko Mantentze eta Zerbitzuak | Makineria eta linea-eroanbideen instalazio eta mantentze elektromekanikoa |

# II. ERANSKINA 70/2004 DEKRETUARENA

## DEKRETU HONETAKO 7. ARTIKULUAK GAITASUNA EBALUATU ETA AITORTZEKO EZARRI DUEN SISTEMAREN BITARTEZ EGINGO DIREN PROBETARAKO MATRIKULAZIO-IKASTETXEAK

| LANBIDE ARLOA | IKASTETXEAK |
|---|---|
| Fabrikazio Mekanikoa | Mendizabala GLHBI<br>Iurreta GLHBI<br>Fadura GLHBI<br>Nicolas Larburu BHI<br>Repelega GLHBI<br>San Jorge GLHBI<br>Elorrieta-Erreka Mari GLHBI<br>Easo GLHBI<br>Armeria Eskola GLHBI<br>Don Bosco GLHBI<br>Miguel Altuna GLHBI<br>Bidasoa GLHBI<br>Usurbil GLHBI<br>Tolosaldea GLHBI<br>Instituto de Máquina-Herramienta BHI (BTI)<br>Arrasate-Aretxabaleta BHI |
| Ibilgailu Autopropultsatuen Mantentze-lanak | Mendizabala GLHBI<br>Iurreta GLHBI<br>Fadura BHI<br>San Jorge GLHBI<br>Don Bosco GLHBI<br>Elgoibar BHI<br>Minas BHI<br>Bidebieta BHI |
| Ostalaritza eta Turismoa | Ostalaritza (Gamarra) BHI (ITB)<br>Ostalaritza Eskola (Leioa) BHI<br>Hostelería/ Ostalaritza (Galdakao) BHI<br>Easo GLHBI |

| LANBIDE ARLOA | IKASTETXEAK |
|---|---|
| Elektrizitatea eta Elektronika | Mendizabala GLHBI<br>Iurreta GLHBI<br>Fadura GLHBI<br>Ategorri-Tartanga GLHBI<br>Nicolás Larburu GLHBI<br>Repelega GLHBI<br>San Jorge GLHBI<br>Elorrieta-Erreka Mari GLHBI<br>Easo GLHBI<br>Armeria Eskola GLHBI<br>Don Bosco GLHBI<br>Miguel Altuna GLHBI<br>Bidasoa GLHBI<br>Usurbil GLHBI<br>Tolosaldea GLHBI<br>Bidebieta BHI |
| Produkzioko Mantentze eta Zerbitzuak | Mendizabala GLHBI<br>Zaraobe BHI<br>San Jorge<br>Elorrieta-Erreka Mari GLHBI<br>Repelega GLHBI<br>Usurbil GLHBI<br>Don Bosco GLHBI<br>Armeria Eskola GLHBI<br>Instituto de Máquina-Herramienta BHI (BTI)<br>Tolosaldea GLHBI |

*ANEXO I AL DECRETO 70/2004.*

*FAMILIAS PROFESIONES Y CICLOS FORMATIVOS PARA LA MODALIDAD DE PRUEBAS POR EL DISPOSITIVO DE EVALUACIÓN Y RECONOCIMIENTO DE LA COMPETENCIA ESTABLECIDO EN EL ARTÍCULO 7*

| *FAMILIA PROFESIONAL* | *CICLO FORMATIVO* |
|---|---|
| *Fabricación Mecánica* | *Mecanizado*<br>*Producción por Mecanizado* |
| *Mantenimiento de Vehículos Autopropulsados* | *Carrocería* |
| *Hostelería y Turismo* | *Cocina* |
| *Electricidad y Electrónica* | *Equipos e Instalaciones Electrotécnicas*<br>*Sistemas de Telecomunicación e Informáticos* |
| *Mantenimiento y Servicios a la Producción* | *Instalación y Mantenimiento Electromecánico y Conducción de Líneas* |

*ANEXO II AL DECRETO 70/2004.*

*CENTROS DE MATRICULACIÓN PARA LAS PRUEBAS POR EL DISPOSITIVO DE EVALUACIÓN Y RECONOCIMIENTO DE LA COMPETENCIA ESTABLECIDO EN EL ARTÍCULO 7*

| FAMILIA PROFESIONAL | CENTRO |
|---|---|
| Fabricación Mecánica | IEFPS Mendizabala<br>IEFPS Iurreta<br>IEFPS Fadura<br>IES Nicolas Larburu<br>IEFPS Repelega<br>IEFPS San Jorge<br>IEFPS Elorrieta-Erreka Mari<br>IEFPS Easo<br>IEFPS Armería Eskola<br>IEFPS Don Bosco<br>IEFPS Miguel Altuna<br>IEFPS Bidasoa<br>IEFPS Usurbil<br>IEFPS Tolosaldea<br>IES(ITT) Instituto de Máquina-Herramienta<br>IES Arrasate-Aretxabaleta |
| Mantenimiento de Vehículos Autopropulsados | IEFPS Mendizabala<br>IEFPS Iurreta<br>IES Fadura<br>IEFPS San Jorge<br>IEFPS Don Bosco<br>IES Elgoibar<br>IES Minas<br>IES Bidebieta |
| Hostelería y Turismo | IES(ITS) Hostelería (Gamarra)<br>IES Escuela de Hostelería (Leioa)<br>IES Hostelería/ Ostalaritza (Galdakao)<br>IEFPS Easo |
| Electricidad y Electrónica | IEFPS Mendizabala<br>IEFPS Iurreta<br>IEFPS Fadura<br>IEFPS Ategorri-Tartanga<br>IEFPS Nicolás Larburu<br>IEFPS Repelega<br>IEFPS San Jorge<br>IEFPS Elorrieta-Erreka Mari<br>IEFPS Easo<br>IEFPS Armería Eskola<br>IEFPS Don Bosco<br>IEFPS Miguel Altuna<br>IEFPS Bidasoa<br>IEFPS Usurbil<br>IEFPS Tolosaldea<br>IES Bidebieta |

| *FAMILIA PROFESIONAL* | *CENTRO* |
|---|---|
| *Mantenimiento y Servicios a la Producción* | *IEFPS Mendizabala*<br>*IES Zaraobe*<br>*IES Minas*<br>*IEFPS San Jorge*<br>*IEFPS Elorrieta-Erreka Mari*<br>*IEFPS Repelega*<br>*IEFPS Usurbil*<br>*IEFPS Don Bosco*<br>*IEFPS Armería Eskola*<br>*IES (IIT) Instituto de Máquina-Herramienta*<br>*IEFPS Tolosaldea* |

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### OSASUN SAILA

### Zk-2306

2595/2004 EBAZPENA, martxoaren 29koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, hutsik dauden destinoak esleituko dira, eta pertsonal estatutarioa izendatuko da, fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldean, otorrinolaringologiako mediku espezialisten kategoriako destinoak betetzeko, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 273/2002 Ebazpenaren bidez, pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko, eta, fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldean, otorrinolaringologiako mediku espezialisten kategoriako destinoak (Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu erakundeak) betetzeko aukeraketa-probetarako deia egin zen. Deialdi hori maiatzaren 21eko EHAAn, 94 zenbakian, argitaratu zen.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren urriaren 24ko 630/2003 Ebazpenaren bidez, pertsonal estatutarioaren egoerara hel-

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### N°-2306

RESOLUCIÓN 2595/2004, de 29 de marzo, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se procede a la adjudicación de destinos vacantes y al nombramiento como personal estatutario en la categoría de Médico especialista en Otorrinolaringología del grupo profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 273/2002, de 26 de abril, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se convocaron pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Médico especialista en Otorrinolaringología del grupo profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el B.O.P.V. n.º 94, de 21 de mayo.

Mediante Resolución 630/2003, de 24 de octubre, de la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se ordenó la publicación en el